# ERAKUSLEIHOA

NARRATIBA

## 'Trumoiaren alaba'

Jon Arretxe. Erein.
144 orr. 15 euro




### Sumatran barrena, abentura eta arrisku artean

Sumatra uhartean kokatutako abenturanobela honetan, neska nerabe bat, Batari, eta bere neba txikia, Kusuma, bakarrik geratu dira munduan hondamendi natural baten ondorioz. Ibilbide luze bat egin behar dute elkarrekin uhartean zehar harrera ona egingo dien ahaideren baten bila. Ustekabez eta magiaz zipriztindutako istorio honetan, mila abentura eta arrisku biziko dituzte neba-arrebok. Emakumeen egoera, naturaren suntsitzea, turismoaren eragina, erlijioen arteko lehiak, umeen trafikoa,mafien lana... dira azaltzen diren gaietako batzuk.

NARRATIBA

## 'Sotoan gordeak'

Miren Gorrotxategi. Txalaparta. 224 orr. 16 euro.




### Sotoan gordetako sekretuak azaleratuz

Guggenheimeko erakusketa batean ikusi du Norak itzal bat, iheska, lekuz kanpo: beste garai baten gomuta. Ondoan du Alex, galdetu arren erantzunik lortuko ez duena; ez, behintzat, berak nahi lituzkeenaren ahotik. Egun berean jasoko du Norak aitaren heriotzaren albistea, eta horrek eramanen du bikotea Noraren sorterrira, Vianara. Han, mahasti artean, galderak pilatuko zaizkio Alexi. Odolezko familian eta hautatutako familian isildutakoak, hitz erdiak eta estalitakoak zurrustan aterako dira, (H)ilbeltza beka irabazlearen eleberri beltz honetan.

# ZALDI EROA

